

EMAUS GIZARTE-FUNDAZIOAK ETA KOOPERA INGURUMEN-ZERBITZUEK ATE IREKIKO JARDUNALDIAK ANTOLATU DITUZTE, HONDAKINEN PREBENTZIORAKO EUROPAKO ASTEAREKIN BAT EGINEZ, EHUNGINTZAKO ETA TAMAINA HANDIKO HONDAKINEN ETA GAILU ELEKTRIKO ZEIN ELEKTRONIKOEN TRATAMENDURAKO ERREENTERIAN ETA URNIETAN IREKI DITUZTEN BI INSTALAZIOETAN

Donostia, azaroak 19; Hondakinen Prebentziorako Europako Astearekin bat eginez, **Emaus Gizarte Fundazioak eta Koopera Ingurumen Zerbitzuek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuaren** laguntzarekin, **ate irekiko jardunaldiak** antolatu dituzte, **Erreneriako** eta Urnietako beren tratamendu-zentroetan. Bisitak azaroaren 18tik 21era bitartean egin dira, eta topagune izango dira ekonomia zirkularreko eta gizarteratze- eta laneratze-arlo publiko eta pribatuko eragileentzat eta inguruko ikastetxeetako ikasleentzat.

Hilaren 18ko eta 19ko jardunaldiak bertaratu diren biztanle taldeei egokituta egin dira, eta orduete eta ordu eta erdi arteko iraupena izan dute. Sektoreko profesionalek, laneratze- enpresek, ekonomia zirkularreko elkarteek eta erakundeek gertutik ezagutu ahal izan dituzte laneratze- enplegu-aukerak eta prestakuntzako eta trebakuntzako ibilbideak, tamaina handiko hondakinak, GEEHak eta ehungintzako hondakinak bildu, tratatu eta merkaturatzeko jardueren bidez sortzen direnak.

Azaroaren 20an eta 21ean, gaztetxoek txanda izan da. Errenerian, herriko Oiartzo ikastolako ikasleak hartu ditugu, eta Urnietan, Salestarren ikastetxeak. Guztira, 15 eta 16 urte bitarteko 40 ikasle hondakin kudeaketa gertutik ezagutzeko aukera izan dute, eta horrek gaiarekiko ardura hartzen lagunduko die, gazte-gaztetatik.

Topaketa horiek arrakastatsuak izan dira, eta arduradunen hitzetan (**Aitziber Zubillaga**, Emaus Gizarte Fundazioko zuzendari nagusia, eta **Pedro Carrasco**, Koopera Ingurumen Zerbitzuen harreman instituzionalen arduraduna): *"Jardunaldiak aukera aparta dira ingurumen-kudeaketako eta hirugarren sektoreko eragileok aurrean ditugun erronkak partekatze-ko, ehungintzako eta bolumen handiko baliabideen eta GEEHen kudeaketak gure lurraldean eragiten dituen erronkak partekatze-ko, alegia, eta aurrera egiteko berrerabilpen-tasa handitzeko eta hondakin kopurua murrizteko bidean. Eta hori guztia, ekonomia sozialeko enpresen bidez, gizarteratze-ko aukera soziolaboralak sortuz".*

Bestalde, **José Ignacio Asensiok**, Jasangarritasuneko diputatuak, honako hau adierazi du: *"Emaus Gizarte Fundazioaren eta Koopera Ingurumen Zerbitzuen hondakinak tratatzeko instalazio berriak aurrerapen esanguratsua dira Gipuzkoako hondakin kudeaketa jasangarrian. Instalazio horien bidez, ekonomia zirkularra sustatzen eta gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonentzat lan-aukerak sortzen ari gara. Mota honetako ekimenak funtsezkoak dira eredu ekonomiko jasangarriago eta bidezkoago baterako trantsizioan aurrera egiteko, Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralaren helburuekin bat. Horrenbestez, Jasangarritasun Departamentutik, ingurumena babesten eta gizarteratzen lagunduko duten proiektuak babesten jarraituko dugu".*

Jardunaldietan erakunde, antolakunde eta enpresetako ordezkari ugari izan dira: José Ignacio Asensio eta Mónica Pedreira, Gipuzkoako Foru Aldundiko jasangarritasun-departamentuko diputatua eta trantsizio ekologikoko zuzendaria; **Aizpea Otaegi**, Erreneriako alkatea; **Jorge Segurado**, Urnietako alkatea; **Xabier Esteban**, NATURKLIMA klusterreko zuzendari nagusia; **Olga Martín**, ACLIMA klusterreko zuzendaria; **Ane Lertxundi**, HABIC klusterreko ingurumen-koordinatzailea; **Enrique Redondo**, ECOLEC fundazioko proiektu-zuzendaria; **Rubén Camerero eta Francisco Jesús Campo**, IK ingeniarietakoak; **Enara García**, Beterri-Buruntzako mankomunitateko enplegu- eta prestakuntza-teknikaria eta **Andrea Etxaur**; **Isidro Salaberria**, San Marcos mankomunitatea; **Patxi Arrazola**, Oarsoaldea Garatzen; **Jennifer Alonso**, Zabalduz-eko gizarteratze soziolaboraleko teknikaria; **Jaione Ayala**, Daiteke-ko enplegu- eta prestakuntza-arduraduna; **Iván Elustondo**, Sutargi-ko operazio- eta kalitate-zuzendaria; **José Ignacio Hernández**, AEG berrikuntza-eskolako zuzendaria; **Blanca Zaragüeta**, Zaragüeta-Zulaica Fundazioko presidentea; Cristina Peña eta Uxue Iturriondobeitia, EHU/UPV; Carmen Jaca, Natalia Mayorquin eta Rafael

Mora, Tecnun; Uxue Ezeiza eta Ainhoa Ontoria, Lanbide; Arancha Aguirrezabala, APP Estudios; Leire Aranburu, Tratamientos Geuria; **Leticia Sánchez**, Kinetix-eko zuzendaria; eta **Eugenia Michelena**, Electrotécnica del Urumeakoa.

URTEAN 2.500 TONA BAINO GEHIAGO KUDEATZEKO ETA LANERATZE-ARLOKO ENPLEGUA SORTZEKO GAITASUNA DUTEN INSTALAZIOAK

2024ko urtarriletik, Emaus Gizarte Fundazioak eta Koopera Ingurumen Zerbitzuek ABEE bat eratu dute, bi erakundeek Gipuzkoan kudeatzen dituzten hondakinak modu bateratuan tratatzeko. Eta, zeregin horretarako, instalazioak eta prozesuak egokitu dituzte, hondakinak tratatzeko bi instalazioetan.

Errenteriako eta Urnietako lantegiei esker, Gipuzkoako hondakinen kudeaketak automatizazio handiagoa izan du prozesu guztietan; izan ere, iraulgailudun uhal garraiatzailea erosi da ehunak sailkatzeko, eta garbigailuen diagnostikoa ere egiten hasi dira, haien berrerabilpen-portzentajeak hobetzeko eta prozesuak eraginkorragoak egiteko asmoz.

Guztira, 4.000 metro karratu baino gehiagoko instalazioak dira, hondakinak behar bezala kudeatzeko ez ezik, laneratzen ari diren langileak lan-merkatuan sartzen lagunduko duten ibilbide soziolaboralak egiteko. Ibilbide horien barruan, ekoizpen-jardueraz gain, lan-merkatura bideratutako prestakuntza-prozesuak egiten dira.

Urnietako instalazioan, **urtean 280 tonatik gora gailu elektriko eta elektroniko kudeatzen dira. Gailu handien kasuan, berrerabilpen-tasa % 10ekoa da, eta gailu txikien kasuan, % 40koa.** Horretarako, laneratzekeo zazpi postu sortu dira: lau hondakinen bilketan eta hiru berrerabilpen-prozesuetan.

Tamaina handiko hondakinen kasuan, urtean 300 tonatik gora kudeatzen dira. Berrerabilpen-tasa % 60ra iristen da, eta hiru lanpostu sortu ditugu.

Errenteriako instalazioan, kontsumo osteko ehungintzaren kudeaketa integrala egiten duen plantan, urtean 2.000 tona kudeatzera irits daitezke; berrerabiltzeko edo birziklatzeko helmuga bat emango zaie, eta zabortegeira ezer ez joatea bermatuko da. Gaur egun, Errenteriako instalazioko hamabi postuetatik zortzi gizarteratzeko lanpostuak dira. Berrerabilera bideratutako zatia, Gipuzkoan bi erakundeen artean dituzten moda iraunkorreko 10 dendetara bideratzen da nagusiki.

Emaus Gizarte Fundazioak eta Koopera Ingurumen Zerbitzuek ahalbidetzen duten berrerabilpen horri esker, produktu horien guztien bizitza baliagarria luzatzen da, hondakin berriak sortzea ekiditen da, baliabide naturalak ustiatzeko eta objektu berriak fabrikatzeko beharra saihesten da, eta, hala, jarduerak ekonomia zirkularren printzipioekin bat egiten du.

HONDAKINEN KUDEAKETAK JASANGARRITASUNEAN DUEN ERAGINA

Gipuzkoak klima-aldaketaren erronkari aurre egin behar dio, eta, bide horretan, inor atzean utziko ez duten soluzio berritzaileak baliatu behar ditu. Horretarako, balizko soluzio horien guztien artean, funtsezkoa da hondakinen kudeaketan espezializatutako azpiegituraz hornitzea gure lurraldea, pertsonak erdigunean jarriko dituen ekonomia zirkularra sustatzeko.

Ildo horretatik, **Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Integralak** zenbait kudeaketa-helburu ezartzen ditu **6.3 atalean. 4. helburuan** aipatzen denez, beharrezkoa da **“berrerabiltzeko prestakuntzan aurrera egitea** (konponketa, zaharberritzea edo birmanufaktura), eta hainbat fluxu lehenestea, hala nola ehun-hondakinak, tamaina handiko hondakinak, gailu elektrikoekin zein elektronikoen hondakinak, eta konponduz gero bigarren bizitza bat izan dezaketen beste hondakin batzuenak”.

Esparru horretan, Emaus Gizarte Fundazioak eta Koopera Ingurumen Zerbitzuek beren gain hartzen dute erronka hori, lan-merkatu arruntera sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak laneratzekeo aukerak sortzeko, eta, beren misioarekin bat etorritik, beren jarduerak indartzen jarraitzeko, Gipuzkoan ehun-hondakinen, tamaina handiko hondakinen eta GEEHen berrerabilpenaren esparruan.



Ekimen horiek, ekonomia zirkularra bultzatzeaz gain, komunitatea aktibatzeo aukera bat sustatu nahi dute berrerabilpenaren eta inklusioaren esparruan, gure lurraldean eragin sozial positiboa sortzeko.

GIPUZKOA SOZIAL ETA ZIRKULAR BATEN ALDE

Emaus Gizarte Fundazioa eta Koopera Ingurumen Zerbitzuak irabazi asmorik gabeko bi erakunde dira, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea errazteko lan egiten dutenak, pertsonen arreta emateko jardueren bidez, ingurumen-zerbitzuen bidez, berrerabilpenaren eta birziklapenaren bidez, eta kontsumo jasangarriaren eta prestakuntzaren bidez.

Gure azken helburua komunitatea eraldatzea da, herritarren pentsamendu kritikoa sustatzen duten sareko prozesuak eta proiektuak abian jarritz, eta, hala, ingurune sozial, kultural eta ekonomiko bidezkoagoa, inklusiboagoa eta kohesionatuago bat eraikitzen laguntzea, pertsona guztiak eta ingurumena zainduko dituen.

Prentsarako kontaktua:

Aiala Fernández / Tel.: 604 559 391 / Helbide elektronikoa: aiala.fernandez@emaus.com